– Osasun Saileko teknikari bat.

INDARGABETZE XEDAPENA

Apirilaren 7ko 83/1992 Dekretua indargabeturik geratzen da, bai eta dekretu honen aurkakoak diren maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak ere.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Herrizaingo sailburuari, Osasun sailburuari eta Garraio eta Herrilan sailburuari ahalmena ematen zaie dekretu hau garatzeko eta burutzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

*Bigarrena.*– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko uztailaren 23an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Herrizaingo sailburua,
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

Osasun sailburua,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

Garraio eta Herrilan sailburua,
JOSÉ ANTONIO MATURANA PLAZA.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### 3894

192/1996 DEKRETUA, uztailaren 23koa, Euskal Herriko Unibertsitatean «Euskarako Institutua» izeneko unibertsitate–institutua sortzeko dena.

Unibertsitate–Erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoak zientzia eta teknika mailako ikerkuntzara edo artegintzara dedikatutako funtsezko zentru bezala jotzen ditu unibertsitate–institutuak eta irakaskuntza espezializatuei edo doktoretza ikastaroei dagozkien irakaste–jardunak gauzatu ahal izango dituzte eta beren gaitasun arloko gaietan beren aholku–lan teknikoa ere eskaini.

Unibertsitate–institutuak sortzea Unibertsitateko Gizarte–Kontseiluaren proposamenez eta Unibertsitateen Kontseiluak informea eman ondoren dagokion autonomi elkarteak erabakiko duela xedatzen du aipatutako lege horrek.

Martxoaren 18ko 70/1985 Dekretuz onartutako Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuek beren aldetik, beren 257. atalean agintzen dute unibertsitateak unibertsitate-institutu bat sortuko duela, departamen-

– Un Técnico del Departamento de Sanidad.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Queda derogado el Decreto 83/1992, de 7 de abril, y cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a este Decreto.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta a los Consejeros de Interior, Sanidad y Transportes y Obras Públicas, para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del presente Decreto.

*Segunda.*– Este Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de julio de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Interior,
JUAN MARÍA ATUTXA MENDIOLA.

El Consejero de Sanidad,
IÑAKI AZKUNA URRETA.

El Consejero de Transportes y Obras Públicas,
JOSÉ ANTONIO MATURANA PLAZA.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### 3894

DECRETO 192/1996, de 23 de julio, por el que se crea el Instituto Universitario denominado «Instituto de Euskara» en la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

La Ley Orgánica 11/1983, de 25 de agosto, de Reforma Universitaria, define los Institutos Universitarios como centros fundamentalmente dedicados a la investigación científica y técnica o a la creación artística, pudiendo realizar actividades docentes referidas a enseñanzas especializadas o cursos de doctorado y proporcionar el asesoramiento técnico en materias de su competencia.

La misma Ley dispone que la creación de los Institutos Universitarios será acordada por la Comunidad Autónoma correspondiente, a propuesta del Consejo Social de la Universidad y previo informe del Consejo de Universidades.

Por su parte, los Estatutos de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, aprobados por Decreto 70/1985, de 18 de marzo, establecen en su artículo 257 que la Universidad procederá a la creación

tuen artekoa eta fakultateen artekoa izango dena eta euskararen normalkuntzara eta garapenera dedikatuko dena.

Estatutuek institutu horri ematen dizkioten helburuen artean hauek daude: euskararen eta euskaraz didaktikari buruzko ezagutza eta ikerketaren arlo desberdinetan lexikografia–ikerkuntza egitea, halaber unibertsitatean eta beste hezkuntza–mailetan egindako irakaste–esperientzietan lortutako emaitzen jarraipen eta ebaluazioa egitea ere. Gainera, ikastetxeen arteko ikastaro bereziak ematea, edozein mailatan testuak eta irakasteko materialak prestatzea eta bere gaitasun arloan aholkularitza teknikoa eskaintzea.

Estatutuetako manuarekin bat eginik, Gobernu Kontseiluak bere sortze–txostena eta arauteria onartu ondoren, unibertsitateak unibertsitate–institutu hori sortzeko izapideak hasi ditu eta aipatutako institutu hori «Euskarako Institutua» deituko da. Gero EHUko Gizarte–Kontseiluak institutu hori sortzea eskatu dio Jaurlaritzari.

Ondorioz, Euskal Herriko Unibertsitateko Gizarte Kontseiluaren proposamena eta Unibertsitateen Kontseiluaren informea ikusi ondoren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko uztailaren 23an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. atala.*– «Euskarako Institutua» izeneko unibertsitate–institutua sortzen da Euskal Herriko Unibertsitatean.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

Unibertsitate –institutu horren jardunak hasteak eskatzen du Unibertsitateko aurrekontuetan behar adinako zuzkidurak egotea eta agintedun organoek dagozkion langile–plantilak onartzea.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Dekretu honetan agindutakoak garatzeko arauak emateko eskumena ematen zaio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari.

*Bigarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hartuko du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko uztailaren 23an.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
INAXIO OLIVERI ALBISU.

de un Instituto Universitario, interdepartamental e interfacultativo, dedicado a la normalización y desarrollo del euskara.

Entre las finalidades que atribuyen los Estatutos a este Instituto se encuentran: la investigación lexicográfica en las distintas áreas del conocimiento y la investigación sobre didáctica de y en euskara, así como el seguimiento y evaluación de los resultados obtenidos en las experiencias docentes realizadas en la Universidad y en otros niveles educativos. Y también, la impartición de cursos especiales intercentros, la preparación de textos y material docente de cualquier nivel, y la prestación de asesoramiento técnico en el ámbito de su competencia.

Conforme al mandato estatutario, la Universidad ha iniciado los trámites para la creación del referido Instituto Universitario, que se denominará «Instituto de Euskara», con la aprobación de su Memoria de creación, y de su Reglamento, por la Junta de Gobierno. Y posteriormente, el Consejo Social de la UPV/EHU ha solicitado al Gobierno la creación del mismo.

En su virtud, vistas la propuesta del Consejo Social de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea y el informe del Consejo de Universidades, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 23 de julio de 1996

DISPONGO:

*Artículo 1.*– Se crea el Instituto Universitario denominado «Instituto del Euskara» en la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

El inicio de las actividades de este Instituto Universitario requerirá la inclusión de las dotaciones presupuestarias necesarias en los Presupuestos de la Universidad y la aprobación de sus plantillas de personal por los órganos competentes.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– Se faculta al Consejero de Educación, Universidades e Investigación para dictar normas en desarrollo de las previsiones de este Decreto.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de julio de 1996.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
INAXIO OLIVERI ALBISU.